

Irakaskuntza Publikoa



Nafarroa

2014ko ekaina 91.zbk.

DENOK
BATERA

INO A LA
LOMCE RI
EZ!

Editoriala	3
LOMCE	4
IIP programa	5
Interinoak	6
Landa eremuko eskolak	7
Eilastasuna / Gazako arka	8
o-3 haurreskolak	9
Mujer	10
Jubilazioa	11
Lan osasuna	12
EAE	13
LGBTI taldea	14
Jendarte mugimenduak	15
Han hemenka	16



STEE-EILASEN KONGRESUAN CATALUNYAKO HEZKUNTZA PUBLIKOAREKIN BAT!



ARTIKULU
BELIZISTAK
IKASTETXEETATIK
AT!

X. Congreso de STEE-EILAS

Los pasados días 16 y 17 de mayo nuestro sindicato celebró su X congreso en Gasteiz bajo el lema “Con la Mayoría Social. En Educación STEE-EILAS”.

A lo largo del congreso contamos con la participación de 151 delegadas y delegados de todos los sectores y territorios y también asistió un gran número de personas invitadas, representantes de distintos sindicatos de Euskal Herria y de otros territorios (IAC-USTEC de Cataluña, Confederación de STEs, STEG de Galicia, STE-i de Baleares y STPV-Intersindical Valenciana) y de otras organizaciones políticas y sociales.

Tal como se constató en el Informe de Gestión del Secretariado Nacional, han sido años muy duros en los que el sindicato ha sabido estar en el lugar que le correspondía, en las movilizaciones generales, entre ellas las huelgas, y en las sectoriales.

Siguiendo un esquema congresual clásico se presentaron 3 ponencias: Análisis de la situación Sociopolítica, Educación y Organización.

En la primera se remarcaron entre otros los siguientes aspectos: la pérdida de derechos y el progresivo proceso de empobrecimiento como consecuencia de la gestión de la crisis y la necesidad de seguir luchando contra la política de recortes; la preocupante situación de la negociación colectiva; el presente y el futuro político; las expectativas generadas a raíz del abandono de la lucha armada por parte de ETA.

En la ponencia de Educación además de resaltar la importancia de reforzar la red pública en todas las etapas educativas, se habló de euskera y plurilingüismo, coeducación, convivencia, laicismo, condiciones laborales... y por supuesto, de la necesidad de enfrentarnos a la LOMCE y de dar pasos para la construcción de un modelo educativo propio.

En el tema organizativo se han introducido algunos cambios, entre ellos la ampliación de la comisión permanente, que contará con 8 personas; el compromiso de reforzar la Comisión de Educación que debe ser el órgano que alimente el debate de política educativa en el sindicato; y el cambio de nombre, dejaremos de ser STEE-EILAS para pasar a ser STEILAS. Pero nos queda sin resolver, especialmente en algunos territorios, uno de nuestros déficits: la participación en la vida del sindicato y en la toma de decisiones.

En este congreso hemos conseguido una renovación importante, y un rejuvenecimiento, de los órganos del sindicato, el 75% de la Comisión Permanente y casi el 50% del Secretariado Nacional.

Las numerosas resoluciones que se aprobaron en el congreso sobre temas de actualidad (Las fiestas de la Escuela Pública; Día Internacional contra la Lesbofobia, Homofobia, Transfobia y Bifobia; contra la Ley Mordaza; A favor del derecho a decidir de las mujeres, por los derechos de los presos, contra la ocupación de Palestina...) completaron la imagen de las causas que defiende nuestro sindicato.

No sólo hubo palabras en el congreso, las imágenes también jugaron un papel importante. Mediante los vídeos realizados por nuestros compañeros y compañeras se presentó el nuevo grupo de trabajo de LGTBI, las opiniones sobre el sindicato de algunas de las personas afiliadas más conocidas o recordamos las movilizaciones realizadas durante los últimos años.

El afilado humor del grupo Ohiulari Klown con sus clowncusiones nos ayudó a desmitificar nuestras sendas discusiones y a reírnos con ganas.

37 años, diez congresos y seguimos adelante... Irakaskuntzan STEE-EILAS!!



“Sindikatuaren antolakuntzari dagokionez, hainbat aldaketa egin dira; besteak beste Batzar Iraunkorraren handitzea (orain 8 pertsonak osatuko dute) eta STEE-EILAS izatetik STEILAS izatera pasako gara”.

Hemen dugu LOMCE nafar erara



Dagoeneko ia bi urte pasatu dira lege honen lehenengo zirriborroa argitaratu zenetik.

Lege atzerakoi honek hezkuntza sisteman sor zezakeen kaltea sakonki aztertu ondoren ezartzearen kontrako mobilizazioei ekin genien.

Bazirudien erabateko adostasuna zegoela hezkuntza eragileen artean eta indarrak metatu ziren legearen aprobazioa saihesteko. Baina argitaratu zenetik, 2013ko abenduan, hezkuntza eragileen jarrera oso anitza izan da: batzuei orain ez zaie hain txarra iruditzen edo gutxienez alde positiboren bat aurkitu diote, beste batzuk etsipena adierazi dute edota estatuan eman daitekeen aldaketa politikoan jarri dute bere itxaropena (honekin batera hezkuntza legea aldatuko duela pentsatzen dute).

Guk, berriz, argi dugu gure erronka dela ezarpenari eragozpenak jartzea eta horretarako desobedientzia kolektiboa dela bidea.

Sortzen, ELA, LAB, IA, UEU eta Hik-Hasirekin batera LOMCEri aurre egiteko egindako “Gure Gida” maiatzaren 6an aurkeztu zen eta sozializatzeko lehenengo batzarra Agurainen egin zen maiatzaren 10ean. Guk nahi genuen baino berandua iritsi da gida hau, ikasturte bukaera ez baita momentu egokiena hausnarketarako, baina LOMCEren aurkako eta hezkuntza sistamarako beste alternatibak bilatzeko bidea luzea izango da eta hau lehenengo urratsa besterik ez da.

Azken asteotan zenbait eskualdetan batzarrak burutu (ala burutuko ditugu) gida aurkezteko eta ekarpenak jasotzeko, gida tresna dinamikoa izatea nahi baitugu, eta batzarretatik ateratzen diren proposamenak jaso eta elkar-

trukatzeko bidea ezarriko dugu komunikazioa erraztuz, ikastetxeen sarea sortuz eta blog bat laguntzeko tresna bezala erabiliz: gurehezkuntzaeraiki.wordpress.com

Aldi berean, hezkuntza komunitatearen gainontzeko eragileekin (irakasle zein ikasleen sindikatuak, gurasoen federazioak, eta zuzendari elkar-teak) beste eragile sozialekin eta talde parlamentarioekin elkartuko gara gure proposamenak azaltzeko, euren ekarpenak jasotzeko eta alianzak bilatzeko, dugun erronkari ahalik eta modu bateratue- nean aurre egiteko.

Administrazioa mezu lasai- garria zabaltzen ari da: ez da ezer aldatuko, denak berdin jarraituko du, LOMCEren ezarpena dialogoaren bitartez egingo da... Iribasek bere sinisgarritasuna galdu zuen hasieratik, ospetsu bihurtu dira bere “mentiribas” delakoak. Guk, denok batera, lor dezakegu LOMCEren ezarpena gelditzea.

Merezitako oporrak disfrutatu eta indarrak hartu, datorren ikasturte hasieratik LOMCEri aurre egiteko desobedientzia bideari heltzeko denok batera! •

Tenemos claro que nuestro objetivo es paralizar la implantación de la LOMCE y el camino para ello debe comenzar desde la desobediencia colectiva.



Decretazo: adelante con el PAI a toda costa

Sin ningún tipo de consenso ni negociación, el Departamento ha aprobado un Decretazo mediante el cual, entre otras medidas, rebaja el nivel de inglés para impartir en PAI e incorpora personal de Inglés en listas de Infantil. Una huida hacia adelante para continuar sí o sí con la extensión de estos programas en Navarra.

El pasado 8 de mayo se publicaba en el BON el último Decretazo del Departamento de Educación. A decir verdad bien lo podríamos denominar macrodecreto dado que contiene 13 artículos y regula asuntos tan diversos y dispares entre sí como los programas de aprendizaje de idiomas, las comisiones de servicio y los concursos de traslados. **STEE-EILAS** pidió reiteradamente al Departamento que dividiera este macrodecreto en tres distintos ya que entendíamos que regulaba temas sin ninguna relación entre sí. Ante la negativa de la Administración nos hemos negado a negociar el apartado correspondiente a los programas de aprendizaje de idiomas y tras pedir su retirada nos hemos levantado hasta en tres ocasiones de la Mesa Sectorial.

A nuestro juicio el Departamento ha utilizado el señuelo de proponer la limitación temporal de algunas comisiones de servicio (varios sindicatos venían tiempo pidiéndolo) para llevar adelante su verdadero plan: crear un marco jurídico *ad hoc* para regular la contratación de personal para los programas PAI, dado que hasta ahora estas contrataciones se hacían al margen de la normativa vigente. La razón última no es otra que la falta de suficiente profesorado acreditado para poder continuar con la expansión de estos programas.


Y es precisamente por ello que mediante este Decretazo se otorga una acreditación transitoria (equivalente a nivel C1) hasta 2021 para trabajar en centros PAI a todos los docentes que teniendo acreditado nivel B2 bien hayan trabajado un mínimo de 20 meses como cotutor/a de Educación Infantil y Primaria en lengua extranjera en Navarra o bien estén inscritos en planes de formación del Departamento de Educación encaminados a obtener nivel C1. Una rebaja clara del nivel de idioma que sería exigible para impartir clase en programas de aprendizaje de idiomas y que pone en entredicho la tan cacareada calidad educativa de estos programas. **Pero al Departamento de Iribas le dá igual cuál sea el nivel de idioma de los docentes, los recursos que se dispongan o el nivel que pueda obtener el alumnado con tal de que la extensión de los PAI continúe de manera imparable. Vende muy bien ante los padres y madres, dá votos y además frena la matriculación en modelo D, tal y como reconoció Barcina en aquella casposa tertulia televisiva en Madrid.**

También consideramos alarmante el hecho de que el Departamento a través de este decreto haya incorporado de oficio a las listas de Educación Infantil y Primaria (euskera y castellano) a todo el personal interino que figure en las listas de Inglés y haya trabajado al menos 20 meses como cotutor/a de lengua extranjera en centros PAI. Más si cabe teniendo en cuenta que el pasado mes de abril los tribunales dieron la razón a un recurso de **STEE-EILAS** sobre una adjudicación de plazas de interinos/as de Educación Infantil. La sentencia fue clara: la especialidad siempre debe prevalecer sobre el conocimiento del inglés. Al igual que en 2009, **STEE-EILAS** va a recurrir tanto la incorporación a listas como el Decretazo en su conjunto. •



Zerbitzu eginkizunak eta lekualdatze lehiaketak

Dekretazoan zerbitzu eginkizunen eta lekualdatze lehiaketaren inguruko hainbat gai jorratzen dira. Horrela, programa espeziako eta CAP, CREENA edo EIBZko zerbitzu eginkizunak arautzen diren arren, beste zerbitzu eginkizun batzuei ez zaie denbora mugarik ezartzen. Era berean, ingelesezko, frantsesezko edo euskarazko oposaketak gaituzten zituzten behin-behineko funtzionarioek hizkuntza perfilarekin eskeintzen diren Haur eta Lehen Hezkuntzako lanpostuak eskatzeko aukera izango dute, beti ere beharrezko titulazioa badute.



A vueltas con el sistema de oposiciones

El Ministerio de Educación ha propuesto un nuevo sistema de acceso a la función pública docente en el que se incluirían pruebas en lengua extranjera y nuevas tecnologías. De momento se ha comprometido a no seguir adelante mientras no se apruebe el nuevo Estatuto Docente.

Todo un insulto a la labor, dedicación, profesionalidad y buen hacer del profesorado en general y del personal interino en particular.

Vinculado al Estatuto Docente

No obstante, tras reunirse pocos días después con los sindicatos que conforman la Mesa Sectorial del Estado el Ministerio accedía a no cambiar el sistema de acceso mientras no se apruebe el nuevo Estatuto Docente en su conjunto. Cabe recordar que los sindicatos han remarcado que no darán su beneplácito a este proyecto en tanto en cuanto no se retiren los recortes aprobados en el Real Decreto de abril 2012 (aumento de horas lectivas y ratios, retraso de las sustituciones...), algo a lo que el Ministerio parece bastante reacio. Por tanto, podríamos estar ante una campaña de lavado de imagen del PP para ganar votos de cara a las elecciones y no ante una verdadera propuesta sería de Estatuto Docente. No obstante, tendremos que esperar a ver cómo se desarrollan los acontecimientos en los próximos meses.

Doble vía de acceso

Además, no hay que olvidar que estas nuevas pruebas serían totalmente discriminatorias para el personal interi-

no, ya que se le estaría exigiendo unos requisitos y una formación que no se le dieron en su formación inicial. En este sentido, desde **STEE-EILAS** pensamos que lo más razonable sería crear una doble vía de acceso, de manera que se estableciesen pruebas diferenciadas para el personal aspirante e interino, ya que es obvio que ambos colectivos no están en igualdad de oportunidades dado que el trabajo de docente deja muy poco tiempo disponible para poder preparar una prueba de estas características como es debido. Este método garantizaría la necesidad de regular una convocatoria extraordinaria de acceso del profesorado con servicios previos, de manera que, respetando los principios de igualdad, mérito y capacidad, añadiría el del efectivo reconocimiento de años de experiencia docente de dicho colectivo, lo que permitiría que el sistema no prescindiera de un profesorado que lleva años demostrando su buen hacer. Asimismo, las personas opositoras sin experiencia tendrían oportunidades reales de acceso a la función pública. •

Llega el final de curso y comienza otra vez la incertidumbre y los nervios para el profesorado interino. Un carrusel de preguntas se agolpan en la cabeza: ¿Cuántas vacantes saldrán este año? ¿Me llegará para coger una? ¿Seguiré el próximo curso trabajando en este centro? O simplemente... ¿trabajaré? Pero a todas ellas se ha sumado un nuevo quebradero de cabeza para el personal interino: el nuevo sistema de acceso que quiere implantar el Ministerio de Wert.

Vayamos por partes. A finales del pasado mes de abril saltaba la noticia: el Ministerio de Educación quería endurecer el sistema de acceso a la función pública docente incluyendo una prueba en lengua extranjera (oral y escrita) y otra en nuevas tecnologías. Era algo que el Gobierno del PP lo venía anunciando desde hacía meses, con la LOMCE también habría cambios en los temarios y en el sistema de acceso. El argumento, el mismo de siempre, repetido una y otra vez como un mantra; “la culpa del fracaso escolar la tiene el bajo nivel del profesorado, por tanto, lo mejor es endurecer los requisitos para ser docente y así mejorará el rendimiento escolar”.



Nafarroako landa eremuko eskolen IV. Jardunaldiak

Pasa den maiatzaren 17an, Le-sakako Irain eskolan, Nafarroako Landa Eremuko Eskolen IV. Jardunaldiak ospatu zituzten. Hagitz balorazio ona egin dute aurtengo topaketetaz. Parte hartzea handia izan zen, 140 lagun inguru. Ondorengo hau izan zen egitaraua:

Parte hartzaileei harrera egin eta hasiera ekitaldia burutu zen. Bertan Jardunaldien nondik norakoak azaldu zituzten Ana Urroz Malerrekako koordinatzaileak eta Aitor Elexpuru Arantzako Herri Eskolako zuzendariak, Baztan, Garralda eta Lizarraldeako koordinatzaileak alboan zituztelarik. Sarrera ekitaldi honetan jardunaldien helburuak azaldu ziren:

Alde batetik, Nafarroako landa eskolek abian jarri duten lana ezagutaraztea; bestetik, landa eskolak elkar ezagutu eta lankidetzan jardun daitezzen bultzatzea; eta, azkenik, eskola hauetan ematen diren eta irakasle eta hezkuntza eragile gehienek ezagutzen ez dituzten lan dinamikak ezagutzera ematea gizartean. Gure arazoak azaleratu eta aldarrikapenerako tartea ere izan zen: ratioak, eskolen itxiera edo/eta irekierak, ikastetxeen egoera fisikoa, hornikuntza zailen lanpostuak eta abar...



Bukatzeko, Bortzirietan grabaturiko D eredua eta eskola publikoaren aldeko bideo bat proiektatu zen. (Youtube-n **‘Bortzirietan euskal eskola publikoa!’** izenarekin)

Honen ondotik, bi txandetan hamar ponentzia aurkeztu ziren:

“Antzerki eleanitza: adin ezberdinetako haurrek elkarrekin lan egin eta hizkuntza ezberdinetan ahozotasuna garatzeko ekintzak”, Haur eta Lehen H.I.P. Arrano Beltza (Iturmendi).

“La lana: transformación de una materia prima de modo artesanal”, CPEIP de Urroz-Villa.

“Erronkaritik Afrikara elkartasunaren bidetik”, Haur eta Lehen H.I.P. Julian Gayarre (Erronkari).

“Educ-acción; hacia una coherencia entre ser y hacer”, CP Gabriel Valentín Casamayor (Aibar).

“Eskola inklusiboa”, Haur eta Lehen H.I.P. H.I.P. Landagain (Etxalar)

“Educación para el desarrollo en una escuela rural”, CPEIP de Añorbe

“Eskuz esku, eskola”, Arbizuko haur eta Lehen H.I.P.

“Proyecto científico: desastres naturales”, Urdiaingo haur eta Lehen H.I.P.

“Eskola baratza”, Arantzako haur eta Lehen H.I.P.

“Taller de teatro y expresión”, Etxalar, Igantzi eta Arantzako Haur eta Lehen H.I.P.

Azkenik 40 lagun inguru bildu ziren bazkaltzera eskolan bertan. Aipatzen da, Hezkuntza Departamentutik eta ikuskaritzatik, ez zela ordezkariarik hurbildu.●

ELKARRIZKETA **Maite Oteiza**. Baztan, Zugarramurdi eta Urdazubiko eskoletako eta Nafarroako landa eremuko eskolen koordinatzailea. Zigako eskolan zuzendaria

Badira urte batzuk elkarlanean dihardugula eta zuek argitaratutako bi txostenak defendatu eta zabaldu ditugula, baina, ikasturte honetan eta hurrengoetara begira, zeintzu dira zuen aldarri eta behar nagusiak?

Gaur egungo gure aldarriak azken urteotako berdinak dira. Alderdi ekonomikoan (ad: ikasleen ateraldiak: autobusak aurrekontuaren portzentairirik altuena da), giza baliabideetan (ad: zuzendaritza/ tutoretza/atezainaren lanak), gestioa (ad: Educa, ez dago batere egokitua gure beharretara, liburuoen beka/ dohakotasun programa...), LOMCEren ezarpena...

Badakigu ere landa eremuko eskolen zonifikazioa duela gutxi Hezkuntza Departamentuak aldebakarreko erabakiz aldatu

zuela, eskola komunitatearekin inongo adostasunik gabe. Nola baloratzen duzue aldaketa hau?

Edozein erabaki hartzeko orduan inplikatuekin kontatzea ezinbestekoa da, bertzenaz arazoez hortzen segituko dute. Beharren azterketarako ikuspuntu desberdinak izanik bien arteko adostasuna behar beharrezkoa da. Arazoak konpondu beharrezkoa da. Arazoak konpondu beharrezkoa da, denboran luzatuko dira, irtenbiderik gabe.

Azkenik, LOMCE lege arrotz, ideologizatzaile eta inposatzailearen aurrean nola ikusten zarete Nafarroako landa eremuko eskolak, bai antolakuntza zein curriculum aldetik? LOEn esaten ez zen bezala, lege honetan ‘Landa eremuko ikasleen eskolatzeak dituen berariazko beharrak era be-

rezian aintzat hartuko dira’ aipatzen da... zer iradokitzen dizue honek?

Gure ustez kontrako ondorioa izanen du. Ikaskuntza-irakaskuntza prozesua arras bideratu izanen da, eta emaitzen, estatistikaren menpe murgilduko gara. Ikasleen beharrak ez dira isladatuko eta ez dira kontutan hartuko. Lege berriak eskatzen duen jarraipenean, norbaitek ezin badu jarraitu, bidean gelditzeko arriskua izanen du. Landa Eremuko eskoleetako maisu/maistrek gure eskuetan dagoen guztia egiten eta eginen dugu, baina gaur egungo burukraziak gero eta denbora guttiago uzten digu, gure klaseko eguneroko lanean aritzeko, eta beldurra dugu honek ekarriko dituen ondorioak.●

eilastasuna asanblada



Otsailaren 21ean Gasteizen Eilastasunako asanblada egin genuen eta bertan herri hezkuntzarekin erlazioa daukaten 15 proiektu solidario onartu ziren. Asanbladan 27 Eilastasun kide egon ginen eta hauen artean bultzatzaile lanak egiten ari direnek proiektuei buruz hitz egin ziguten. Proiektu hauek El Salvador, Guatemala, Txile (Maputxeen lurraldean), Chiapas (Mexiko), Palestina eta Tindufen Saharar errefuxiatuak dauden kanpamentuetan daude kokatuta.

Orokorrean proiektuetako arduradunekin hartu emanak onak dira eta Euskal Herritik hainbat lagunek proiektuak bisitatu dituzte. Proiektuak eta bisitatu dituzten bi pertsonek beraien esperientzia kontatu zuten asanbladan; batak Honduraseko hauteskundeetan nazioarteko behatzaile moduan izandako esperientzia eta besteak Palestinan brigada baten parte bizi izandakoa kontatu zuten. Aurkeztu ziguten gainetik bada ere Saharako errefuxiatuen ibilbidea komiki batean.

Ikastetxe publiko bateko zuzendaritza taldekide bat ere etorri zen bere ikastetxean datorren urtetik aurrera proiektu batekin ikasleek lanketa bat egingo dutela azaltzera. Egia da ikastetxe batzuk daudela Eilastasunako proiektu batzuekin lanean, baina datorren urtetik aurrera ikastetxe gehiagoen inplikazioa nahiko genuke aberasgarriagoa izateko.

Proiektuen arduradun batzuk ere urtean zehar bisitatu eta hitzaldi batzuk eman dizkigute, eta hemendik aurrera ikastetxeetan edo/eta sindikatuan egingo diren ekimenak areagotzea izango da helburu nagusienetako bat.

34.000 euro izan ditugu proiektu hauen artean banatzeko eta asanbladan onartu zen zenbat diru banatu behar zen proiektu bakoitzari, 2.000 euro eta 2.300 euro artean. **STEE-EILAS**en diru sarreraren %1az eta bazkideen ekarpenez, 5 euro hilabeteko, osatuta dago Eilastasuna Fondoko dirua.

Urtean zehar egoitzara heltzen zaizkigun proiektuetako edo kokatuta dauden herrien berriak Eilastasunaren blog-ean ere eskegitzen direla ere aipatu zen. Helbidea eilastasuna.wordpress.com da. •

Gazako arka: itxaropena eraikiz

Proiektu hau (Gaza's Ark) Gazako arrantza itsasontzi bat kargaontzi bihurtzeko asmoarekin birmoldatzen ari da. Itsasontzi hau birmoldatzen ari diren langileak bertakoak dira, baita erabiliko diren beste baliabideak ere. Nazioarteko eta Palestinako tripulazioa Gazan itsasoratuko da, Mediterraneoan nabigaziorako itxita dagoen portu bakarretik. Itsasontzi honek nazioarteko erosleen produktu palestinarak eramanez merkataritza-akordioak bete ahal izango ditu eta, horrez gain, blokeoa ilegal eta gizagabeari desafiatzeko aukera izango du.

Honekin batera, proiektuak, ontzigintza-eraikuntzarako laguntza ematen du. Azken urteetan blokeoaren ondorioz ontzigintza ia ia desagertu egin da Gazan eta honek ondorio larriak ekarri ahal ditu datozen belau-naldietarako.

Proiektu honek beste onura batzuk ere ekartzen dizkio Gazako herriari. Alde batetik Gazako artisauen eta nekazarien produktuak saltzeko aukera izatea munduan eta beste alde batetik Gazako marinelek itxas-gailuak erabiltzeko formatzeko aukera izango dute.

Komertzio eta lan arloan Israelekin duen menpekotasuna dela eta mugen itxierak lurralde okupatuetan zuzenki eragiten du. Gazan, horrek guztiak langabezi tasa altuak izatera (%70) daramatza, diru sarrera, kontsumo eta aurrezkiak gutxiagotzera eta ondorioz, bizi kalitatearen beherakada itzela eta pobrezia gorakada.

Egia da proiektuak Gazan bizi den langabezi larria ekiditeko zertxobait laguntzen duela, jendea kontratatuz itsasontzia birmoldatzen eta merka-



Sailing from Palestine
against the blockade



tariei beraien produktuak zabaltzen, baina proiektuaren helburu nagusia Israeliek ezarri duen blokeoa salatzeta da era baketsu batean.

STEE-EILASek bat egiten du proiektu honekin eta bermea eman dio berari. Beste alde batetik **STEE-EILAS**ek produktu batzuk erosteko konpromisoa hartu du Euskal Herriko beste eragile batzuekin batera eta azkenik berriro salatu nahi du Palestina jasaten ari den blokeoa eta APARTHEIDA. •



0-3 zikloaren inguruko berriak



466 familia prest egongo lirateke bere seme-alabak euskaraz matrikulatzeko bere auzoan.

Azken hilabete hauetan 0-3 zikloko aferak maiz agertu dira komunikabideetan, baina zoritxarrez, berriak gutxitan izan dira onak.

Hala ere, berri baikor batzuk aipa ditzakegu. Hemendik aurrera Hello Iruñeko Udal Haur Eskolek kudeaketa zuzena izango dute. Erabaki hau hartu zen UPNk aurka bozkatu arren. Berri ona ere UPNek lortu ez izana Donibane Udal Haur eskolan ingelesa sartzea.

Oso berri txarra izan da, aldiz, Iribas jaunak ziklo honen finantziarioaren inguruan hartutako erabakia. Apirilak 1ean udalei aurkeztu zien 0-3 ziklo finantziatzeko ituna %30 gutxiagoarekin. Horrek, kasu askotan, suposatuko luke haur eskolak mantentzeko zailtasun handiak izatea edo kuotak, jadanik garestiak direla, gehiago igotzea. Udalen Federazioak bere protesta azaldu zuen, oposizioko talde parlamentarioek baita ere, baina parlamentuan bozkatzeko garaian (nahiz eta balio sinbolikoa besterik ez izan mozio bat baitzen), maiz gertatzen den bezala, PSNek atzera egin zuen eta UPN eta PPrekin batera murrizketen bidea jarraitzea erabaki zuen.

Aurrematrikulazio kanpainean azken urtetako joera finkatu da, gero eta gutxiago dira ziklo honetan matrikulatzen dira haurrak, familiek ezin baitute ordaindu ezartzen diren kuotak.

Iruñeko Haur Eskoletako aurre-matrikulazio kanpainak iraun zuen bitartean zenbait eragilek galdetegi bat pasatu genien bertaraten zirenean jakiteko zenbait egongo lirateke prest beraien seme-alabak euskaraz matrikulatzeko horrelako aukera izango balitz bere auzoan. Ez zegoen tranparik, datuak zehatzak ziren, izen-abizenarekin: 466 familiak prest egongo lirateke bere seme alabak euskaraz matrikulatzeko bere auzoan. Udalak, noski, ez zuen kasurik egin eta datu ofizialetan agertzen da euskaraz dauden eskaeretatik %82 lortzen dute plaza, baina esaten ez dena haxe da: eskaintzen diren 78 plazak auzo bakar batean daude. •

El departamento recorta la financiación

durante los últimos meses han aparecido en los medios de comunicación muchas noticias relacionadas con el ciclo 0-3. Algunas han sido positivas: el freno a la imposición del inglés o el revertir a la gestión pública los centros Hello del Ayuntamiento de Pamplona. Sin embargo la decisión del Departamento de Educación de disminuir la financiación del ciclo en un 30% no augura un buen futuro a este ciclo educativo.

Hemendik aurrera Hello Iruñeko Udal Haur Eskolek kudeaketa zuzena izango dute.

Menos denuncias pero la violencia sexista continúa



Este último dato nos alegraría tanto como al Señor Allí (consejero de Política Social) si lo contempláramos como una muestra de la disminución de la violencia contra las mujeres, pero lejos de ello y unido a la retirada de denuncias lo que nos muestra es que hay un problema de base. Que las mujeres no se sienten seguras ni para afrontar la denuncia, ni en el proceso que viene a continuación.

Las instituciones no asumen su responsabilidad

El consejero afirma que para conocer las causas del por qué se retiran las denuncias hace falta un estudio sobre el perfil de dichas mujeres. Pasando la pelota al CGPJ (Consejo General del Poder Judicial) Una vez más se hace recaer la responsabilidad en la mujer maltratada y sus características personales, en lugar de verificar la protección legal que recibe y los obstáculos que se encuentra en el camino.

No se asume la responsabilidad desde las instituciones, realizando una investigación propia, mediante la realización de encuestas de victimización que analicen el funcionamiento de todos los agentes que participen en el recorrido tras la denuncia, ni una comparativa de los recursos y las condiciones de los protocolos que se aplican en Navarra con el de otras comunidades en las que no se acusa este problema.

El Observatorio contra la Violencia Doméstica y de Género nos muestra que en Navarra se observa la mayor retirada de denuncias por este concepto, un 27,24% frente al 12,25% de media del estado, y en cuanto a denuncias presentadas un 37,18 % frente al 52,18 estatal.

¿Por qué las mujeres no denuncian?

Las causas de que las mujeres no denuncien son variadas: el temor a que la relación con el agresor sea más violenta, el perjudicar a los hijos e hijas, la dependencia económica (tipificado como victimización primaria), la desconfianza hacia la Administración de Justicia y el desconocimiento del itinerario a seguir tras una denuncia (tipificada como victimización secundaria).

En estas últimas causas es donde las administraciones públicas tienen una responsabilidad clara, al no poner los recursos suficientes y en las condiciones precisas, para evitar la deserción de las mujeres al afrontar el duro proceso.

Nos encontramos ante mujeres que tras un arranque de valentía para denunciar se encuentran con un proceso largo y dificultoso, en el que tienen que pasar por distintas instituciones; policía, centros de salud, juzgados, juicios, centro mujer, asesoría legal, etc.. y cada uno con sensibilidades diferentes a la hora de tratar el tema.

Nuestra responsabilidad social

Por ello, tanto desde el movimiento feminista como desde **STEE-EILAS**, seguimos reivindicando el cumplimiento de la Ley integral de Violencia contra la Mujer de 2005. Que se cumplan los protocolos y no se queden en papel mojado, que se acompañe a las mujeres en todo el proceso y se forme a los y las profesionales de los diferentes estamentos que tienen que abordar esta tarea. Que se traba-

“**STEE-EILAS** sí asume su responsabilidad social para acabar con esta lacra y desde nuestro lugar seguiremos trabajando para erradicarla”

je la prevención a través de la educación.

Desde la consejería se está preparando una nueva ley de violencia de género, y no dudamos que todo puede ser mejorable. Pero desde nuestro sindicato se nos impone una duda, ¿Cómo podemos corregir algo que no se ha llevado a la práctica?

STEE-EILAS sí asume su responsabilidad social para acabar con esta lacra y desde nuestro lugar seguiremos trabajando para erradicarla. Realizando y difundiendo materiales coeducativos que doten al profesorado de recursos para diagnosticar y prevenir la violencia sexista. Reclamando y denunciando junto al movimiento feminista los incumplimientos de las leyes.

Denunciando una y otra vez la violencia estructural contra las mujeres en todo el mundo y manifestando nuestra repulsa a las agresiones sexistas allí donde se den, ya sea en nuestro entorno cercano Txantrea, Villava... o los secuestros de las 276 niñas en Nigeria arrancadas de la escuela secundaria donde estudiaban.

Basta ya, de violencia contra la mujer!!





Jubilación digna para todas

Los cambios legislativos impuestos estos últimos años han endurecido sobremanera los requisitos para poder acceder a la jubilación. Desde STEE-EILAS hemos impulsado diversas iniciativas para exigir la vuelta a las anteriores condiciones.

Con los cambios legales de estos últimos años han endurecido los requisitos para jubilarse para todos los colectivos implicados:

- Para el funcionamiento de MUFACE ya no hay prima de jubilación y ha perdido la posibilidad de sumar 5 años más de cotización, por lo que ahora siguen pudiendo jubilarse al cumplir 60 años, pero para cobrar la pensión máxima deben tener 35 años cotizados.
- El funcionamiento de Seguridad Social (somos 508 personas procedentes de Ikastolas Municipales, Zubiarte ikastegia, Escuela Oficial de Idiomas, Orientación, Educación física, Educación de adultos, Formación Profesional, hiru Herri ikastola y los procedentes del País Vasco, las que nos encontramos en esta situación) y el personal interino, hasta el 31 de agosto de 2011 tenían las mismas condiciones que el de MUFACE, pero ahora no tiene acceso a la jubilación voluntaria anticipada y tampoco al retiro parcial unido a un contrato de relevo.

En Navarra hemos tratado este tema durante estos dos últimos años.

En primer lugar lo llevamos a la Comisión de Personal Docente y los 9 sindicatos que la integramos apoyamos que se posibilite la jubilación voluntaria anticipada a todo el mundo en igualdad de condiciones.



Presentamos este agravio comparativo al Departamento en Mesa Sectorial y nos manifestó su actitud favorable, procediendo a elaborar un informe favorable a nuestra solicitud.

Nos reunimos con la Comisión de Educación del Parlamento de Navarra el 30 de mayo de 2012 para solicitarles su apoyo, cosa que hicieron todos los grupos parlamentarios.

Presentamos una moción ante el Parlamento de Navarra que en sesión de la Comisión de Educación del día 25 de junio de 2012 aprobó una resolución en este sentido. El Departamento de Educación mandó una carta al ministro WERT solicitando que tomase en consideración la resolución del parlamento, pero...•

“ Los 9 sindicatos que integramos la Comisión de Personal Docente apoyamos que se posibilite la jubilación voluntaria anticipada a todo el profesorado en igualdad de condiciones”.

Jubilazio duina guztiontzat

EAEn plataforma bat sortu dute eta guk egindako bideari ekin nahi diote. Informazioa jasotzeko jubilazioduinaguztiontzat@gmail.com posta elektronikoa duzu, eginen dutenarekin informatzeko facebook orri bat ere badugu; <http://www.facebook.com/jubilazio.duinaguztiontzat/> eta web orria ere: <http://sites.google.com/site/jubilazioduinaguztiontzat/>

Gainzamaren ondorioei aurre egin



“ Hezkuntza Departamentuak baliabide urriak bideratzen ditu gure osasuna zaintzeko”

Apirilaren 28an Lan Osasunaren Eguna ospatu genuen. Gure sindikatuak, urtero egiten duen bezala, gai jakin baten inguruan egin zuen aldarrikapena: **GAINZAMAK ZAPALTZEN GAITU**. Badira gure osasuna urratu eta kaltetu egiten dituzten hainbat faktore, hala nola, ordu lektibo igoera, erretiro adina atzeratzea, ikasgeletako giroa, administrazioaren trikimailuak kontratu murrizkak egiteko, neurrigabeko eskaerak, sozialki gutxi baloratua den jarduna... Ikasturte bukaerako lan zama handiak ere gure osasunean ondorio zuzena du.

Alferrikakoa da lan prebentzioaz eta lan esparru malguez jardutea, aldez aurretik planifikazio ariketa seriorik eta behar bezalako inbertsiorik ez badago, osasunaren zaintza osoa fisikoa eta psikologikoa bermatuko duena. Hezkuntza Departamentuak baliabide urriak bideratzen ditu gure osasuna zaintzeko, eta are gutxiago prebentzio neurriak jartzeko. Diren urriak, ongi ezagutu ez ezik, baliatu ere egin behar ditugu:

- Osasuna ebaluatzeko eskaera. Ikastetxeetako langile guztiei batera egiten ohi zaie mediku azterketa, baina irakasle kontratatuak ikas-

“ Badira gure osasuna urratu eta kaltetu egiten dituzten hainbat faktore”

tetxe batetik bestera ibiltzen dira, eta horren ondorioz ez dute osasun azterketa egiteko aukerarik. Nork bere osasuna ebaluatzeko eskaera egitea du.

- Norberaren lanpostuaren azterketa. Inoiz pentsatzen baduzu zure lanpostua ebaluatu behar dela (lankideren batekin arazoak direlako, arazo ergonomikoengatik...) Lan Arriskuei Aurrea Hartzeko Atalera deitu eta azaldu zein den zure egoera.
- Ikastetxearen ebaluazioa. Honelako eskaera ikastetxeek bidera dezakete, edo sindikatu batek. Bi motako ebaluazioak izaten ahal dira: ikastetxearena eta ebaluazio psiko-soziala. Ikastetxearen ebaluazioa egiten denean, bisita da lehenengo urratsa (sindikatuetakako ordezkariekin batera) eta ondoren gomendio sorta egiten da kaltegarriak diren faktoreak zuzentzeko. Ebaluazio psikosoziala aztertzeke Atalaren bi psikologo bertaratzen dira ikastetxera eta langile guztiei inkesta bat pasatzen diete lankideen arteko giroa ezagutzeko. Hainbat elkarrizketa pertsonal ere egiten dira egoeraz jabetzeko (edonork eskaintzen ahal du bere burua). Behin ebaluazioa eginda, gomendioak ematen zaizkie langileei euren arteko giroa hobetzeraren eta, arazorik izanez gero, konponbideak proposatzeko. Laguntza psikologikoa ere eskatzeko aukera dago.

“ Prebentzio neurriak ezagutzea eta kasu egitea ezinbestekoa dugu”

La sobrecarga nos enferma

La excesiva carga de trabajo, las relaciones interpersonales en los centros, la incertidumbre de tener un contrato... son factores que perjudican nuestra salud. Corresponde tanto al Departamento como a las personas que trabajamos en él cuidar nuestra salud. Si bien los recursos que destina el Departamento de Educación a la prevención y cuidado son escasos, es importante conocer las posibilidades que se nos ofrece: solicitud de examen médico, evaluación del puesto de trabajo, evaluación psicosocial del centro... Ante cualquier duda el primer paso es ponerse en contacto con cualquiera de los/as delegados/as de salud sindicales o con la Sección de Prevención de Riesgos Laborales...

Gure osasunaren zainketa Departamentuari ez ezik, norberari ere badagokio. Prebentzio neurriak ezagutzea eta kasu egitea ezinbestekoa dugu eta horretarako hainbat gomendio eskaintzen dizkigu Prebentzio Atalak: higienarako jarraibideak, datuak bistartzeko pantaila lan egitea, kargaz eskuz manipulatzeko, fotokopiagailuen kokapena eta erabilera... Inoiz ikusten baduzu zure osasuna kalte-tzen dutela, edota langile guztiena, jarri harremanetan gure lan osasun delegatuarekin eta ikusiko dugu nola egin aurre egoerari. •



Eusko Jaurlaritzaren **utzikeriak** guztion eskolan

Zenbaitetan egurtu ere egiten duela esan nahi dugu. Azken hilabeteetan izan dugu horren bi adibide garbiak: Helduen Hezkuntzako zentroei luzatutako eraso eta hezkuntza arrazoiengatik eskatutako zerbitzu eginkizunen inguruko erabaki arbitrarioak.

Helduen Hezkuntzaren kasuan argi utzi du Hezkuntza Sailak murrizketen jarraipenak garrantzi handiago duela eskaintza egokia egitea baino. Berrito ere jartzen dira zerbakiak aurretik beste guztia baldintzatzeko. Onartezina da etengabeko aurreztu behar horretan oraingoan ere populazio sektore ahulenak zigortzea; ez dezagun ahaztu krisi garai hauetan are eta beharrezkoago dela formazio egokia eskaintzea ondorio horiek gogoren pairatzen dutenei, gazteak eta etorkinak kasu.

Zerbitzu Eginkizunen gaian, berriz, Lakuan erabaki zikoitzak hartu dituzte hauetako asko bertan behera utziz, kasu gehienetan lurraldeko planifikazio batzordeen borondatearen aurka. Inolako arrazoiengatik izan ez duen neurri estu eta arbitrarioak kalte nabarmenak eragingo ditu ikastetxe askotako proiektu eta funtzionamenduan, eta baita lankide askoren egoeran ere.

Lanpostu zerrenden gaia ere pil-pilean dugu ekainean eta Hezkuntza Sailak “de facto” jarraituko du aplikatzen ratioaren %10eko igoera, talde bikoizketak ukatuz. Hori al da Madrildik inposatutako ratio handitzeari aurre egiteko bidea? Matrikulak berrito gora egin duen honetan ez dago plantillaren handitzerik eta batetik bestera mugituko dituzte lanpostuak, behar berriei orain arteko baliabideekin, inolaz ere nahikoak ez direnak, erantzunez.

Esleipenen dantza ekainean azken hamabostaldian hasiko da eta ez da amaituko abuztuaren amaiera arte. Aitzakia merkeak medio, berrito ere milaka lankidek uztaila eta abuztu osoa euren lanpostua zein izango den jakin gabe pasako dute. Arduragabekeria eta utzikeria dira bururatzen zai-zkigun adjektibo leunenak.

Eta LOMCEekin zer? Hemen ez dela aplikatuko esan eta esan ari da Eusko Jaurlaritzak... baina Madrilekin ari da negoziatzen bitartean. Zer? Ez dakigu. Beraiek bai? Guk dakiguna zera da, legearen artikulua jakin batzuei jarri dietela helegitea eta Hezkuntza Ministerioarekin adostu dutela sei hilabete epean negoziatioak burutzea, ondo bidean, helegiteak erretiratzeko konpromisoaz. Esan ez dutena da ea zergatik ez dieten helegiterik jarri beste batzuei. Adibide batzuk aipatze aldera, hezkuntza publiko eta pribatuari trataera berbera ematen dieten zenbait gai (eskola eskaintza eta ikastetxe sarea zehazteko irizpideak, lurrak eta laguntzak eraikinak egiteko...), zuzendarien aukeraketa prozesuari buruzkoa, emaitzak publiko egitea baimentzea... Agian **Heziberri 2020** egitasmoa garatzeko horrelako irizpideak garatu nahi dituztelako?

Ez dugu gustuko gai hauen inguruan Eusko Jaurlaritzak daraman jokoa, berdintasun faltsuak naturalizat eman nahi dituelako eta ez delako Euskal Eskola Publikoa euskal hezkuntza sistemaren ardatz nagusizat hartzen. Hitzten garaia aspaldi amaitu zen.

Zerbitzu publikoetan, hezkuntza publikoan lehentasunezko inbertsioak egiteko garaia da, eskola komunitateari entzuteko garaia da. Aspalidanik aldarrikatu dugun moduan, **LAN BALDINTZAK HOBETZEKO ETA ESKOLA PUBLIKOA INDARTZEKO GARAIA DA**. Ez dugu etsiko. •



Escuela pública y negligencia del Gobierno Vasco

con demasiada frecuencia se mueve entre la negligencia y los ataques a la enseñanza pública la actitud del Gobierno Vasco. Las últimas sacudidas se han centrado en las plantillas de los centros de enseñanza de adultos, aplicando medidas restrictivas a la hora de definir la oferta educativa de los mismos, y en decisiones arbitrarias en relación a las comisiones de servicio por motivos docentes. Han puesto en peligro numerosos proyectos educativos y el funcionamiento de diversos centros con una medida restrictiva sin ningún tipo de explicación. No son las únicas. La elaboración de las plantillas para el próximo curso va a volver a traer respuesta insuficiente, pues, como mínimo, el aumento de matrícula y de necesidades no va a traer consigo ningún aumento de plantilla.

Lo de la LOMCE raya el absurdo. Sus manifestaciones públicas de posición contraria a la misma y de no aplicación se están dando al mismo tiempo que el compromiso acordado con Wert de negociar durante seis meses los artículos recurridos y la posible retirada de dichos recursos.

Va siendo hora ya de pasar a los hechos, de fortalecer la Escuela Pública Vasca y mejorar las condiciones de sus trabajadoras y trabajadores.

Geu ere **LGTBI**

LGTBI taldekideentzat ez ezik, jendar-te osoarentzat ere garrantzi handiko bi egun ditugu egutegian: **Maiatzaren 17a** eta **Ekainaren 28a**. Lehenengoa, Maiatzaren 17a, Lesbofobia, Homofobia, Transfobia eta Bifobiaren aurkako Nazioarteko Eguna da, eta bigarrena Askatasun Sexualaren Aldeko Eguna (Harrotasun Eguna ere deitu izan zaio).

2012. urtean Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikastetxeetan eginiko inkestetan (Nafarroako daturik ez dugu)

Genero identitatea eta sexu aniztasuna gutxitan lantzen dira ikasgeletan.

hainbat datu kezagarri ikusten ditugu: DBHko ikasleen %23,6k ikusten du bere ikaskideren bat bazterturik dagoela –etengabe– gay izateagatik. Lehen Hezkuntzako azken urtean ere %12k aitortzen du honelako egoerarik ikusi duela. Lesbianatzat hartzen diren nesken kasuetan, berriz, txikiagoak dira ehunekoak: DBHko ikasleen artean %7k ikusi du honelako bazterkeriarik, eta LHko 1.ziklokaren azken urtean %5ean. Egoera hau ez dute soilik sufritzen ikasle gay, lesbiana edo transexualek, aski da erasotu/baztertu nahi zaituen horrek “ezberdin” edo “ahul” ikustea.

Irakasleok eta orientatzaileok hezkuntza hoberena eskaini nahi diegu gure ikasleei, baina askotan ez dakigu nola jokatu bazterkeria kasuen aurrean. **Irakasleon etengabeko formazioa ere ezinbestekoa da** (teknika pedagogikoen ezaguera hutsetik haratago doana) ikusten eta antzematen ikasteko, baita gure eguneroko jardunean ere. Neurriak hartzen diren ikastetxeetan, jazarpen kasuek behera egiten dute nabarmen.



Genero identitatea eta sexu aniztasuna gutxitan lantzen dira ikasgeletan, irakasleok ez dugu gaia jorratzen modu zuzenean. Bestelako hezkuntza eredu behar dugu, aniztasun sexualari modu transbertsalean heltzen diona, ikasgelan ere gaia lantzen duena, eta edozein bortizkeria, bazterkeria eta jazarpen mota ekiditeko behar adina neurri eta esku hartzen dituen.

Egoeraren beharraz oharturik, LGTBI kideek hezkuntza sisteman bizi duten, bizi dugun, egoerak berariazko lanketa behar duela ikusi dugu STEE-EILASen, eta **LGTBI taldea sortu dugu sindikatuan.** •

Neurriak hartzen diren ikastetxeetan, jazarpen kasuek behera egiten dute nabarmen.

Se lo digo?

Por tercer año consecutivo hemos mandado a los centros una unidad didáctica para trabajar la rica diversidad afectivo-sexual que vivimos en nuestras aulas, con el objetivo de empoderar al alumnado en su desarrollo personal, ayudándolo a tener recursos para pedir ayuda, para combatir la exclusión por cuestión de género u identidad sexual, para saber ayudar. Tanto ésta como las unidades anteriores se pueden descargar de la página web: <http://www.stee-eilas.org/category/gaiak/lgtbi/>

LGTBI taldea.

Irakasleon etengabeko formazioa ere ezinbestekoa da.



Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta

Eragile sindikal eta sozialak batzen dituen GUNE plataformatik irten zen Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren dinamika Euskal Herriko herritarren lan eta bizi baldintzak hobetzeko egitasmoarekin. Kartaren helburu nagusia aldaketarako programa komun bat egitea izan da, nahi dugun gizartea eraiki eta herritarroi dagozkigun eskubide unibertsalak bermatzeko. **STEE-EILAS** sindikatua hasieratik aritu da proiektu honetan parte hartzen beste hainbat eragilerekin batera.

Dagoeneko urtebete inguru igaro da Eskubide Sozialen Kartaren osaketan lanean aritu garenetik. Euskal Herriko herri desberdinetan talde dinamizatzaileak eratu ziren eta hauek prozesuaren diseinua erabaki, kudeatu eta jarraipena egin diote. Hasieratik nahi izan da ahalik eta parte hartzaileena eta anitzena izatea, gai konkretuen inguruan dauden ikuspegi eta proposamenak jasotzea eta hausnarketa



Las discusiones y aportaciones realizadas se han tenido en cuenta y fueron aprobadas en la Asamblea Nacional celebrada en Bilbao el 31 de mayo.

El objetivo principal de la Carta es elaborar un programa común para el cambio, construir la sociedad que queremos y garantizar los derechos universales que nos corresponden a la ciudadanía.

kolektiboa egitea. Horretarako dinamika ezberdinez osatutako metodologia prestatu da: auzo eta herrietako asanbladak, world-kafeak, tailerrak, asanblada sektorialak...

Ibilbidea luzea izan da baina jada heldu gara Kartaren osatze prozesuaren helmugara. Izan diren eztabaidak eta ekarpenak jasota daude eta maiatzaren 31n aurkeztu ziren Bilbon Batzar Nazionalean onartzeko asmoz. Behin onartuta, hurrengo pausoa izango da aldarrikapenetarako izango dugun tresna garrantzitsu hau nola erabili adostea. •

Nafarroako Aldaketa sozialaren Aldeko Asanblada

Talde hau politika eta sozial sentibiltate desberdinetako pertsonen artean osaturik dago, abertzaleak, errepublikarrak, sindikalistak, gizarte eragileak, G.K.ko aktibistak, emakumeak, gazteak, jubilatua... pentsamendu askotariko pertsonak. Nafarroan kapitalismoren kontra borrokatzen duten pertsonen arteko zubi-lana egiten saiatu da, inklusibitatea eta zeharkakotasuna tresnak erabiliz hori lortzeko.

La Asamblea ha trabajado por crear puentes entre las personas que luchan contra el capitalismo en Navarra, desde la inclusividad y transversalidad.

Dagoeneko hiru asanblada egin dira, non aldaketarako 14 ardatz adostu, hainbat herrietan eta auzoetan hitzaldiak eman eta eztabaidak antolatu dira, eta apirilaren 12an Gazteluko Plazan ekitaldi handi bat burutu.

Aldaketa sozialaren beharraren mezua Nafarroako gizartea ari da barneratzen, hala ere aldaketa ezta zerutik etorriko, eta guztion konpromiso eskatzen du. Datorren ekainaren 6an beste batzar ireki bat egingen da, zehaztuko dizuegu non eta zein ordutan. Bertan iritzi eta ideiak berriak entzutea esperoan, horiekin udan zehar hasteko hurrengo kanpaina prestatzen. Udazkenean berriro kaleak hartu beharko ditugu. •

El mensaje de la necesidad de un Cambio Social está calando en la sociedad navarra. De todos modos este cambio no caerá del cielo y necesita del compromiso de todas las personas.



Han hemenka irakurritakoak

Primeras oposiciones de la historia



Las primeras referencias halladas hasta el momento sobre el origen de las oposiciones en el Estado las encontramos en un apéndice del manual del profesor García y Barbarín fechado en julio de 1588, en el cual, el rey Felipe II (curiosamente con el mismo nombre del nuevo monarca que se nos quiere imponer en la actualidad) decidió que las maestras y maestros de la escuela pública debían examinarse, eso sí, “bajo pena de treinta mil maravedíes por la primera vez que lo hiziere, y si no tuviese con que pagarlos, destierro del Reyno por tres años”.

En 1825 se elabora un Reglamento que según Rodríguez de Castro establecería el acceso a la función pública docente mediante examen ante una junta pro-

vincial. El contenido de este examen se constituirá en el primer currículo de nuestros maestros del pasado, cuyas materias se distribuirían en tres grupos. Los Requisitos de ingreso a la función pública serían:

- Riguroso examen de comportamiento y de lealtad al Rey, avalado por certificados de las autoridades competentes.
- Tener cumplidos los 24 años y no pasar de los cincuenta.
- Contenidos de enseñanza: Doctrina cristiana, capacidad lectora, en voz alta, en prosa y en verso y en manuscritos que cuenten al menos cien años de antigüedad.
- Contenidos profesionales: Responder a un cuestionario propuesto para demostrar sus conocimientos sobre gobierno de una escuela.

190 años después, un Ministro de Educación llamado Wert nos quiere retrotraer a este tipo de escuela para nuestros hijos e hijas. A pesar de que los siglos pasan, algunas mentalidades siguen siendo las mismas...

Mobilizaziotarako materiala

Gogorazi nahi dizuegu zuen eskolan edo herrian burutzen ari zareten elkarretaratze, manifa, pankarta edo delakoetan erabiltzeko euskarriak gure egoitzetan eskuratu ditzakezuela.



Kartelak, eskuorriak, tirak, kamisetak eta txapak:

Deitu gure egoitzetara!!!

www.stee-eilas.org

Araba Eulogio Serdán 5
01012 Gasteiz
☎ 945 14 11 04 ☎ 945 14 43 02
araba@stee-eilas.org
UPV/EHU Elurreta
Ikasgelategia, 204. Bulegoa
01006 Gasteiz
☎ 945 01 33 97
stee-eilasa@ehu.es

Bizkaia Nikolas Alkorta 3,
lonja 13 Zabalburu
48003 Bilbo
☎ 944 10 02 98 ☎ 944 10 13 60
bizkaia@stee-eilas.org
UPV-EHU Leioako Campusa
Gizarte Arloko Eraikina
48940 Leioa
☎ 94 601 52 87 ☎ 94 601 24 34
lvzeilas@lg.ehu.es

Gipuzkoa Basotxiki 30-34 atz.
20015 Donostia
☎ 943 46 60 00 ☎ 943 45 36 27
gipuzkoa@stee-eilas.org
UPV-EHU Gipuzkoako Campusa
Ignacio M^a Barriola eraikina
Elhuyar Plaza 1
☎ 943 01 84 36 ☎ 943 01 81 40
sczeilas@sl.ehu.es

Nafarroa Joaquin Beunza, 4-6 behea
31014 Iruñea
☎ 948 21 23 55 ☎ 948 22 97 90
nafarroa@stee-eilas.org

**Egoitza Berria!
¡Nueva sede!**